

POLONIA: ATZETIK AURRERA

Emakumeen eta gazteen iraultzak talka egiten du herrialde katoliko atzeratuarekin

MUNDUA / Dabid Lazkanoiturburu

Abortatzeko eskubidearen defentsan emakumeek abiarazitako matxinadari gazteak gehitu zaizkio eta aldarrikapenak gero eta globalagoak dira, justiziaren independentzia barne. Hala ere, iraultza honek, herrialdearen bilakaera historikoak baldintzatuta, katolikoa eta oso-oso kontserbadorea den gehiengo isila du aurrean.

Ehunka mila poloniar atera dira kalera azken hilabeteetan eta egunotan, abortuaren eta oro har emakumearen eskubideak defendatzeko, aldarrikapen gero eta zabalagoak eta politikoagoak dituzten protestetan. Baina herrialdea oso katolikoa da eta «gehiengo isilak» ez ditu inolaz ere eskubide horiek onartzen.

Inkesten arabera, poloniar gehienak bat datoz herrialdeak abortatzeko eskubideari buruz duen legeriarekin, Europan zorrotzenetarikoa eta ezkorrena bada ere. Edo hala delako.

Komunismoaren erorketaren ostean, Eliza katolikoa eta Estatua konpromiso batera iritsi ziren –konpromisoa baino gehiago, Estatuaren lagatzea– eta abortuaren aurkako legea onartu zuten 1993an.

MALFORMAZIO LARRIEKIN ERE EZ

Lege horrek emakumeari abortatzeko eskubidea ukatzen dio, salbuespen batzuekin: bortxaketaren edo intzestuen ostean haurdun gelditzen bada, emakumearen osasuna arriskuan badago eta fetuari malformazio larria atzematen bazaio.

Auzitegi Konstituzionalak atzera bota zuen joan den urrian azken salbuespena, malformazioarena, Poloniako Kons-

tituzioarekin bat ez datorrela ziurtatuz.

Ebazpenean, jaio ez den haur batek bizitzeko eskubidea duela aldarrikatzen du auzitegiak, eta gaur egun fetuaren malformazioak ekiditeko tratamenduak badaudela ziurtatzen du.

Erabaki horrek hautsak harritu zituen eta Polonia osoan jendea atera zen kalera legeriaren atzerapauso horren kontra eta

Jaroslav Kaczynski
Gobernuko PiS alderdi
ultrakontserbadorearen
buruzagia haserre
aurpegiarekin, iaz
emakumeen protesta
batean zabaldutako irudian.
WOJTEK RADWANSKI

abortatzeko eskubidearen alde.

Azken egunetan manifestazioak daude egunero, joan den asteazkenean Konstituzionalak ebazpena kaleratu eta Legea eta Justizia (PiS) izeneko alderdi ultrakontserbadorearen gobernuak aldizkari ofizialean publikatu zuenetik. Izan ere, ordutik indarrean da lege murrizketa berria.

PiS alderdiaren diputatu talde batek ahalbidetu duen Konstituzionalaren ebazpenak praktikan abortatzeko eskubidea debekatzen du. Urtero 2.000 «legezko» abortu inguru egiten dira Polonian eta horietatik %98 fetuaren malformazioak baimentzen zituen orain arte.

Emakumeen eskubidearen alde lan egiten duten erakundeen arabera, urtero 200.000 emakumek legez kanpo abortatzen dute, Polonian bertan –askotan osasuna arriskuan jarritz eta de-

netan zigorren mehatxupear edo Poloniatik kanpo –horretarako behar den dirutzarekin–.

Adam Szostkiewicz politika esataria eta erlijio gizona da, eta onartzen duen arren «batez ere belaunaldi gaztearen mobilizazio izugarria» ikusten ari garela eta gazteen artean handiagoa dela abortuaren inguruan lege liberalago baten aldeko jarrera, «ez da inolaz ere gehiengo».

«Gehiengo isilik egon da azken urteetan, eta zera uste dute: Elizak hala esaten badu eta politikariek legea zalantzan jartzen ez badute, orduan dena ongi dago, behar duen moduan».

2020. urte bukaeran Kantar Institutuak kaleratu zuen ikerketa baten arabera, poloniarren %22 baino ez daude emakumeak hala eskatzen badu abortatzeko eskubide osoa izatearen alde. %62k kasu batzuetan bakarrik onartzen dute. Guztiz legez



Inkesten arabera, poloniar gehienak bat datoz herrialdeak abortatzeko eskubideari buruz duen legeriarekin, European zorrotzenetarikoa eta ezkorrena bada ere. Edo hala delako.

«Polonian ez zen sexu iraultzarik izan. Aitzitik, guk erlijioaren gaurkotzea bizi izan genuen, batez ere erregimen komunistaren aurkako mobilizazioa erlijioarekin lotzen zelako»

kanpo utzi behar dela aldarrikatzen dutenak %11 dira.

SEXU IRAULTZARIK EZ

Katarzyna Zielinska soziologoak gogora ekartzen duenez, «poloniarrok batez ere oso erlijiosoak gara. Eta nahiko kontserbadoreak, emakumearen, gizonaren eta familiaren eginkizunei buruz ikuspegi oso kontserbadore bati lotuak».

Aditu honen iritziz, oso esanguratsua da Europako eta munduko beste herrialde askorekin alderatuta, Polonian ez zela sexu iraultzarik gertatu. «Aitzitik, guk erlijioaren gaurkotzea bizi izan genuen, batez ere erregimen komunistaren aurkako mobilizazioa erlijioarekin lotzen zelako».

Sobietar Batasunaren magal estuan «sozialismo erreala» zeritzona Polonian indarrean zegoenean, abortatzeko eskubideari buruz lege oso liberala zegoen indarrean eta, antisorgailuak oso eskasak eta batzuetan eraginik gabekoak zirela kontuan hartuta, emakume andanak abortatzen zuten.

Inga Koralewska soziologoarekin jarraituz, orduko gobernuak 1956an jarri zuen indarrean abortuaren lege liberala, baina ez feminismoa maite zuelako edo emakumeen eskubideak buruan zituelako, joko politiko hutsagatik baizik. «Elizari zaplazteko bat ematea zuen helburu, Poloniako nortasunaren

ardatza zelako eta oposizio demokratikoa babesten zuelako».

Ezin da ahaztu 1956an bertan izan zela, hain zuzen, Sobietar Batasunaren eta Varsoviako erregimen estalinistaren aurkako herri altxamendua.

Komunismoaren porrotaren inguruan, Estatuak hondoa jo zuen eta indarrean zegoen Eliza katolikoa zuen aurrean. Horrela, bada, hierarkia katolikoak zeresan handia izan zuen egungo abortuaren legerian.

Asmoak asmo, egia da komunismoaren garaian poloniarrek ikuspegi askozaz zabalagoa zutela abortuari buruz.

Nolatan gertatu zen, beraz, horrelako aldaketa sistema erori zenean?

Adituek hainbat arrazoi aipatzen dituzte. Alde batetik, legeak jendearen jarrera moldatzen duela gogoratzen dute, baina agian erabakigarriena izan zen klase politiko guztiak, ezkerre tartean, ez ziola inolaz ere gaiari heldu nahi izan, Eliza katolikoa bere hautesleria kontra botako zuelako beldurrez.

ALDAKETA DATOR

Egoera aldatzen hasi zen 2016an. Orduan ekin zion PiS alderdiaren gobernuak legea murrizteko saiakerari eta jendea kalera atera eta emakume askok abortatu zutela azaltzen eta aldarrikatzen hasi ziren.

Szostkiewicz politika esatariaren iritziz, «aipagarriena zera



Abortatzeko eskubidearen aurka daudenek deabrua ikusten dute protesten atzean. SAUL LOEB

da, talde liberalaren erradikalizazioa. Gehiengo isilaren aurrean eta Elizak beren aferetan esku sartzearekin kokoteraino daudela ondorioztatu dute eta haserrea kaleetan erakusten dute».

Zer gertatuko da, haren iritziz? «Taldea hau indartu egingo da eta epe luzera iritzi publikoan eragina izango du, dudarik gabe. Epe motzera edo gertuko etorkizunean? Inork ez daki», ondorioztatu du erlijiosoak.

Protesta bultzatzen dutenak ziur dira dagoeneko jendearengan aldaketa gauzatu dela eta denbora kontua baino ez dela egoera berria indarrean dagoela ikusteko.

Pablo Gonzalez GARAko ko-laboratzaileak Efe agentziara bidali zuen erreportaje batean ageri denez, badakite lan asko egin beharko dutela oraindik

auzia eskubide kontua dela ohartzen ez direnak konbentzitzeko.

Gurutze Santuaren elizaren atarian dago abortuaren aurka dagoen taldetxo bat, Varsoviako erdialdean. «¡Satan, alde hemendik!», garrasi egiten dute abortuaren aldeko pankartak eta ostadar ikurrak erakusten dituen jendetzaren aurrean.

«MARIA NOREN ALDE?»

Polizia lerroak banatzen ditu bi taldeak baina ez dira eliza «baberren» dutenak hitz egiten duten bakarrak. «Maria gure alde egongo zen», erantzuten diete.

Poloniak bizi duen zatiketa begi bistan dago, baina Gobernuaren aurkako mobilizazioetan bide batez batasuna da nagusi eta horrek berebiziko indarra ematen dio.

Talde feministak eta LGTBI

taldeak bata bestearen ondoan daude. Plataforma liberalak, Varsoviako alkatea den Rafal Trzaskowskik zuzentzen duen oposizioko lehen indarrak, ez du inolako arazorik ezkerreko alderdiekin batera kalera irteteko.

Umore ona ere ez da falta. Aurreko astean, poliziaren probokazioetan erori ez eta ehunka manifestari dantzan hasi ziren Jaroslaw Kaczynski PiSeko buruzagiaren etxe aurrean.

Jaroslaw Kaczynski bera baita itzalean den baina benetako Poloniako presidentea eta Auzitegi Konstituzionalean murrizketa gehiago onartzeko helegitea bultzatu zuena.

Egungo hauek Poloniak azken 30 urteetan, 1989an komunismoaren aurka bizi izan zituenetik, ezagutu dituen protestarik handienak dira. Mi-



Polizia eta manifestariak
aurrez aurre, Varsovia
aurreko astean.
WOJTEK RADWANSKI

lioierditik gora izan dira manifestariak. Herrialdeak 39 milioi biztanle ditu.

Abortuaz harago, 2016an hasi ziren mobilizazioek jomugan dute, halaber, Gobernuak sistema judizialaren independentziaren aurka egindako erasoak.

PiS alderdia betidanik oso azkarra izan da etsaiak seinalatzeko, bere jarraitzaileak ondoan mantentzeko. 2015ean Siriako errefuxiatuak izan ziren, gero LGTBI kolektiboa, hurrengoan feministak.

Hala ere, horrek arriskua dakar: arlo desberdinetan haserre daudenak bildu egiten ditu eta bakoitzak bere egiten ditu beste aldarrikapenak: giza eskubideak, abortua, demokrazia...

Hasieran ez zen horrela: emakume asko ez ziren kalera atera LGTBI kolektiboaren edo sistema judizialaren aldeko protestetan. «Emakumeek lan asko egiten dute. Poloniako BPGaren %30 sortzen dute eta ez dute sosik ere irabazten. Etxean eta kanpoan lan egiten dugu, hau-

rrak zaindu. Gure bizitza gizonezkoena baino gogorragoa da. Baina nahikoa da, marra gorri guztiak gainditu dituzte eta kalera atera gara», dio Magdalena Zagalkowiczek. Varsovian gizarte langilea da bera. Beste berezitasun bat gehitzen du aldaketa azaltzeko. «Duela lau urte 70eko hamarkadan jaio zirenak atera ziren kalera. Gazte jendea ez zegoen horretarako. Orain hazi egin dira eta planto egin dute».

«NETFLIXEN HAZTEN DIRA»

Gobernuan kezkatuta daude gazteek ez dituztelako bere egiten ideia ultrakontserbadoreak. «Netflixen hazten dira», salatu du PiSeko diputatua den Marcin Horalak.

Klementyna Suchanov Strajk Kobiet (Emakumeen Greba) erakundearen bozeramailea dugu (ikusi ondoko elkarrizketa) eta argi du belaunaldi aldaketaren aturrean gaudela. «Lehen jende nagusiagoa ateratzen zen kalera, 70 eta 80ko hamarkadeta-

ko protesten aldarrikapenak dituburuan, demokrazia, lan duina, seme-alaben heziketa...»

«Orain gazteek ez dute inolako arazorik LGTBI kolektiboa babesteko, emakumeen eskubideak aldarrikatzeko. Polonia-rrak dira eta ez daude eroso inguru ultrakontserbadore honetan. Europar Batasunean jaio ziren eta herrialdea aldatu nahi dute», gaineratu du.

Hubert Sobiecki «Milosc Nie Wyklucza» (Amodioak ez du diskriminatzen) LGTBI kolektiboaren eskubideen alde lan egiten duen taldeko bozeramailea bat

dator. «Belaunaldi berriarentzat lehen protestak dira, etxetik irteteko lehen aukera eta gauzak aldatzeko lehen saiakera. Axolagabekeria izugarri honetatik ateratzeko aukera, gauzak alda daitezkeelako seinale».

Baina Sobieckik beste arrazoi bat du egungo protestak askozazabalagoak zergatik diren azaltzeko: emakumeak duen jarrrera toleranteagoa.

«Inkesta guztiek, eta ez bakarrik Polonian, joera bera erakusten dute: mundua ulertzeko orduan planeta desberdinetan bizi dira emakumeak eta gizonezkoak. Lehenak besteari ulertzeko prest daude eta gauzak adosteko gai dira. Gizonezkoek lehiakortasuna dute buruan, gizartean duten paperaren ikuspegi estereotipatua».

Horrela ba, belaunaldi berrien indarrak eta emakumea bere buruaren eta eskubideen jabe izateko grinak bildu egin dira Poloniako «gehiengo isila» isilarazi eta herrialde berri bat posible dela erakusteko.

«¡Satan, alde hemendik!», garrasi egiten diete elizaren ataurretik abortuaren aldeko leloak eta ostadar ikurak erakusten ari direnei. «Maria gure alde egongo zen», erantzuten diete

Belaunaldi berrien indarrak eta emakumeak beren eskubideen jabe izateko grina bildu egin dira Poloniako «gehiengo isila» isilarazi eta Polonia berri bat posible dela erakusteko.

KLEMENTYNA SUCHANOV

EMAKUMEEN GREBA TALDEKO BOZERAMAILEA

«Iraultza honek dagoeneko irabazi du, Polonia aldatu egin da eta gure indarra herrialdearen barneraino iritsi da, PiSen haserrera»



GARA

Azkenaldian abortatzeko eskubidearen inguruko legeria zorroztearen aurka Polonia astintzen ari diren manifestazioak «benetako iraultza» bilakatu dira, dio Klementyna Suchanovek, Emakumeen Greba erakundearen bozeramaileak, Afp-ri eskainitako elkarrizketan.

Nondik dator Poloniako hiri eta herrietan barreiatu den haserrea?
Jendea konturatu da botereak helburu

politikoekin erabiltzen duela. Abortuaren aurkako ebazpenak sutan jarri zuen. Pandemiak haserrea hauspotu egin du. Jendeak ikusten du Gobernuak ez dituela kontuan beraien bizitza, osasuna, segurtasuna...

Zeintzuk dira zuen aldarrikapen nagusiak?

Lehen protestetatik nabaritu zen abortua ez dela jendea astintzen duen auzi bakarra. Egun ez da emakumeen greba,

guztion greba baizik. Jendeak Polonian gertatzen den guztia salatzen du. Emakumeen eskubideen auzia lehen lerroan dago, noski, baina baita ere lan merkatuarekin zerikusia duena, bizitza publikoan jarrera faxisten gero eta eragin handiagoa. Estatu laikoa ere oso garrantzitsua da eta jendeak Estatua eta Eliza banandu nahi ditu. Haserre daude Eliza norberaren bizitzan sartzen delako eta artean Estatuak ekonomikoki laguntzen dio,

eta ez dizkio kontuak eskatzen pedofilia kasuengatik. Sistema juridikotik at dago Eliza. Jendeak aldaketak nahi ditu baita ere hezkuntzan, osasunean, kulturean....

Nor ateratzen da kalera bereziki orain?

XXI. menderako egokia den estatu batean bizi ahal izateko borrokan ari diren emakumeen eta gazteen iraultza da, normal bizi ahal izango diren estatu baten aldekoa. Emakumeen Greba mugimendu zabala zen, baina gero eta gehiago dira gurekin elkartzen direnak. Eta gazteen talde handia dugu orain. Emakumeok adin ertainekoak gara eta gure seme-alabak ditugu orain ondoan. Poloniak behingoz herrialde atzeratua izateari utz diezaion borrokatzen ari dira, nongoak diren esateak lotsa sortu ez diezaienten, eta inork ez diezaienten esan nola bizi behar duten. «Askatasuna» hitzaren balioa deskubritzen ari dira. Eta hori oso polita da.

Ez zarete mugimendua agortuko den beldur?

Gurea ez da iraultza politikoa, munduaren ikuspegiari dagokion iraultza baizik, eta hori ezin da geldiarazi. Iraultza honek dagoeneko irabazi du, Polonia aldatu egin da eta bere fruituak emango ditu datozen urteetan gazte hauen konpromisoaren bidetik. Poloniarentzat aldaketa historikoa da.

Eta mobilizazioa ez da eten, herrialde osoan sakabanatu da. Egutero gertatzen da zeozer, han edo hemen. Haserrea handia dela erakusten du horrek. Izan ere, protesta mugimenduaren indarra ez da hiri handietan, Varsovian, Krakovian edo Poznanen ateratako argazkietan ikusten dena, PiS alderdi ultrakontserbadorearen gotorlekuetan baizik, esaterako, Polonia hegoaldeko lurralde menditsuan. Emakume talde bat benetako iraultza bat aurrera eramateko gai izan da eta hori oso mingarria da PiSentzat. Edonora iritsi gara eta horrek ematen dio iraultzari benetako indarra.